



iAM Izenpe

Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua

■ IZENPE

Tomas Zumarraga Dohatsua, 71 - 1. solairua
01008 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 067 723
www.izenpe.com



	Dokumentuaren izena:	2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	

Aurkibidea

Berrikustek	3
Hasi aurretik	4
Tokena erabiltzea	4
Gutxieneko eskakizunak	4
HID modua	4
CCID modua	4
Sarrera	5
Funtzio eta aplikazio nagusiak	5
Abiaraztea	5
iAM Izenpe gailuaren menu nagusia	9
Internet	9
Gestión tarjeta (Txartelaren kudeaketa)	10
Aplikazioaren funtzionaltasunak	10
CCID	12
Mi carpeta (Nire karpeta)	14
Expulsar (Egotzi)	14



Dokumentuaren izena:

Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua

2012/07/05

2.2. bertsioa

Produktua:

iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua

Berrikustekak

Berrikustea	Data	Aldaketak	Egilea
1.0	2010/09/10	Lehen idazketa	EGG
1.1	2010/09/13	Berrikustea eta onartzea	RLG
1.2	2010/09/15	Berrikuste orokorra Glosarioari terminoak gehitzea Maiz egiten diren galderak gehitzea	ADG
1.3	2010/09/17	Termino berriak glosariora Zuzenketak	ADG
1.4	2010/09/20	Aldaketak pantaila-kapturetan Berrikuste orokorra	RLG
1.5	2012/06/07	Izenpe.	GSA
1.5A	2012/06/08	Berrikustea eta onartzea	RLG
2.0	2012/06/19	Mac OS X-ra egokitzea	RLG
2.1	2012/06/25	Gutxieneko eskakizunak	RLG
2.2	2012/07/05	Linux-era egokitzea	CSC

	Dokumentuaren izena:	2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa
Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua		

Hasi aurretik

Bit4id-etik atsegin handiz eman nahi dizkizugu zorionak merkatuko segurtasun-gailu eramangarri aurreratuen erosi duzulako. Bulego eramangarriaren eta edozein lekutan onartutako sinadura elektronikoaren alorreko azken berrikuntzak integratzen ditu iAM sistemak eta softwareak.

Tokena erabiltzea

KONTUZ: zure iAM gailuak HID moduan funtzionatzen du lehenetsita. Horrek esan nahi du ez duzula inongo instalaziorik egin behar lanean hasi ahal izateko. Hori bezain erraza. Hori bezain segurua. Aski duzu iAM zure ordenagailuaren USB atakan sartzea eta gailuak dituen aplikazioak erabiltzen hasiko zara.

iAM gailuan sartuta ez dauden beste aplikazio batzuekin erabili nahi baduzu, edo gailua txartel adimendunen irakurgailu konbentzional gisa erabili nahi baduzu (zure ordenagailuaren sistema eragileak ezagutua), iAM CCID modura pasatu beharko duzu. Horretarako, iAM konektatzen duzunean abiarazten den aplikazio-barran botoi bat aurkituko duzu: CCID. Aurrerago zehatz-mehatz azalduko dizugu eragiketa hori nola egin.

Oharrak:

- iAM ordenagailuarekin konektatzen duzun bakoitzean HID moduan egongo da. CCID modura pasatu nahi baduzu, adierazitako prozedura errepikatu beharko duzu.
- Kapturak 32 biteko Ubuntu 12.04 LTS bertsioari dagozkio.

Gutxieneko eskakizunak

iAM tokena erabili ahal izateko, tresneria hau izan beharko duzu gutxienez:

HID modua

- 32 biteko Ubuntu sistema eragilea duen ordenagailua, 11.04 bertsioa edo berriagoa
- USB ataka bat libre

CCID modua

- 32 biteko Ubuntu sistema eragilea duen ordenagailua, 11.04 bertsioa edo berriagoa
- USB ataka bat libre
- Administrazioailearen baimenak dituen erabiltzailea
- Izenpe Middleware ordenagailuan behar bezala instalatua
- PC/SC ingurunea ordenagailuan behar bezala instalatua

	Dokumentuaren izena:	2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa
Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua		

Sarrera

Esku artean duzun gailu eramangarria ezin hobea da bulegoa zurekin eramateko eta sinadura elektroniko onartua askatasun osoz egiteko. Oso erraz erabiltzen da, ez baita alde zuretik ezer jakin edo instalatu behar.



Gailu honek SIM formatuko txartel adimendun bat (AES, DES eta 3DES kriptografia simetrikoko eta RSA kriptografia asimetrikoko 512, 1024 eta 2048 biteko algoritmoak kalkulatzeko diseinatutako mikrotxip bat), txartel adimendunen irakurgailu bat eta aplikazioz hornitutako microSD memoria bat ditu barruan. Aplikazio horiek barne-memorian exekutatzen dira, kanpoko inongo mendetasunik gabe.

Funtzio eta aplikazio nagusiak

Mozilla Firefox Internet arakatzailea: nabigatu arrastorik utzi gabe nabigatzaile eramangarria erabilita. Gainera, zure ziurtagiri digitala edozein webgunetan erabiltzen uzten dizu.

Txartel adimendunaren kudeaketa: aldatu erraztasun osoz zure ziurtagiriaren PINa/PUKa, inportatu ziurtagiriak, eta abar.

Txartel-irakurgailu tradizional gisa erabiltzea **CCID moduan:** erabili txartel-irakurgailu tradizional gisa.

Gailua segurtasunez egozte: atera gailua erosotasun eta segurtasun osoz.

Fitxategiak biltegitatzeko lekua: zuzeneko sarbidea duzu zure gailuko karpeta batera, zure fitxategiak noranahi eramateko.

Abiaraztea

iAM Izenpe erabiltzen hasteko, nahikoa da gailua zure ordenagailuarekin konektatzea eta argibide erraz batzuei jarraitzea.

	Dokumentuaren izena:		2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua		2.2. bertsioa
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua		


Ordenagailua abiarazi eta sistema eragilea kargatu denean, erabilgarri dagoen edozein USB atakatan konekta dezakezu gailua.

Exekutatzeko prozedura:


1. iAM konektatzen duzunean, sistemak automatikoki detektatuko du eta detektatutako unitatea agertuko da.
2. Menua automatikoki kargatzen ez bada, egin klik unitatearen gainean.



3. Pantailaren erdian beste leiho bat ateratzen denean, klik bikoitza egin beharko duzu 'Izenpe' karpetaaren gainean. Ondoren, klik bikoitza 'K4' karpetaaren gainean.



4. Azkenik, menu nagusia abiarazteko, klik bikoitza egin beharko duzu kickstart.bat fitxategi exekutagarriaren gainean.



5. Eta menua abiaraziko da.

	Dokumentuaren izena:	2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa
Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua		



Oharrak:

- Gailua txertatzen den lehenengo aldian, erabiltzailearen pasahitza eskatuko du.
- Baliteke sistemaren ingurune grafikoa konfiguratzeko eskatzea. Nahikoa da eragiketa baimentzea, eta automatikoki egingo da atzeko planoan.

Menua bistaratu ezin baduzu, jarri harremanetan sistemaren administratzailearekin.

	Dokumentuaren izena: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2012/07/05 2.2. bertsioa
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	

iAM Izenpe gailuaren menu nagusia

Gailuaren menu nagusian haren funtzio eta ezaugarri guztiak dituzu eskura.



Ikonoen gainean klik eginez sar zaitezke funtzio guztietan.

Hona hemen kontrol nagusiak:

 Siempre visible (Beti gainean): menua ikusgai mantentzen du beti.

 Cerrar (Itxi): menua itxen du.

Menuan aukera hauek aurkituko dituzu:

Internet

Gailuak Mozilla Firefox web-arakatzzailearen bertsio pertsonalizatu bat dakar, zure sisteman inongo instalazio edo aldaketarik egin gabe erabil daitekeena.


Nahikoa da Internet ikonoa sakatzea eta sarea arakatzen hasteko aukera emango dizun leiho bat irekiko da.

Historia, gogokoak eta aldi baterako fitxategiak ez dira inoiz ordenagailuan gordeko, beti gailuan biltegitratzen baitira, hurrengo batean beste edozein ordenagailutan erabiltzeko prest.

Kontuan izan ordenagailuan Mozilla Firefoxen instantzia aktiboren bat baldin badago, ezin izango dela bertsio eramangarria abiarazi. Lehenengo Mozilla Firefoxen beste edozein leiho itxi beharko duzu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo laguntzako menura aplikazio horren leihoan (F1 tekla) edo bisitatu <http://www.mozilla.com/es-ES/> orria.

	Dokumentuaren izena: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2012/07/05
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa



Gestión tarjeta (Txartelaren kudeaketa)

Gestión tarjeta (Txartelaren kudeaketa) erabiltzaile aurreratuentzako tresna da, ziurtagiriak kudeatzeko eta administratzeko aukera ematen duena.

Aplikazioaren funtzionaltasunak




Funtzioa	Deskribapena
Cambiar PIN (PINa aldatu)	Txartelaren PINa aldatzeko funtzioa
Desbloquear PIN (PINa desblokeatu)	Txartelaren PINa haren PUKaren bitartez desblokeatzeko funtzioa
Cambiar PUK (PUKa aldatu)	Txartelaren PUKa aldatzeko funtzioa

	Dokumentuaren izena: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2012/07/05
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa


Cambiar PIN (PINa aldatu)

Idatzi txartelaren PIN zaharra eta PIN berria. PIN berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean izan behar du.




Desbloquear PIN (PINa desblokeatu)

PINa desblokeatzeko, idatzi txartelaren PUKa eta gero idatzi PIN berria. PIN berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean izan behar du.



Cambiar PUK (PUKa aldatu)

Idatzi txartelaren PUK zaharra eta PUK berria. Puk berriak 6 eta 8 digitu alfanumeriko artean izan behar du.




	Dokumentuaren izena: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2012/07/05
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa

CCID

CCID erabiltzaile aurreratuentzako aukera bat da, gure produktua sistema eragileak ezagutzen duen txartel adimendunen irakurgailu konbentzional gisa gaitzen duena.


CCID ikonoa sakatzen duzunean, tokena automatikoki konfiguratuko da txartel estandarren irakurgailu gisa. Konfigurazioa ia bat-batean egiten da, eta amaitzean ez da mezurik bistaratzen.

OHARRA: Izenpe Middleware eskuz instalatu behar duzu, Linux-i gailuarekin behar bezala komunikatzen uzteko. Izenpe Middleware gailuaren memoriaren erroan aurki dezakezu, Librerias (Liburutegiak) karpetaaren barruan.



Middleware instalatzeko informazio gehiago nahi izanez gero, Izenperen webgunean erabilgarri dagoen instalatzeko eskuliburua kontsulta dezakezu.

	Dokumentuaren izena:	2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa
	Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	



Halaber, PC/SC ingurunea sisteman erabiltzeko prest dagoela ziurtatu behar duzu, gailua txartel adimendunen irakurgailu estandar gisa erabiliko duzu-eta.


PC/SC ingurunea konfiguratzeko, nahikoa da `libccid`, `libpcsc-lite` eta `pcscd` paketeak eta adierazten diren dependentzia guztiak instalatzea. Ondoren, beharbada berrabiarazi egin beharko duzu sistema. Edonola ere, ziurtatu `pcscd` deabrua exekutatzen ari dela agindu honen bitartez:

```
/etc/init.d/pcscd start
```

	Dokumentuaren izena:	2012/07/05
	Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua	2.2. bertsioa
Produktua: iAM IzenpeiAM Izenpe: Linux-erako erabiltzailearen eskuliburua		

Mi carpeta (Nire karpeta)

iAM gailuan erreserbatutako lekua, zure fitxategi eta dokumentuak edozein USB memoriatan bezala gordetzeko aukera izan dezazun.



Expulsar (Egotzi)

Gailuko datuen koherentzia-arazoak saihesteko, gailua segurtasunez ateratzea komeni da beti, irekitako fitxategiekin arazorik izango ez dela ziurtatzeko.

Gailua ateratzeko ikonoa sakatu ondoren, segundo batzuen buruan segurtasun osoz atera dezakezu gailua.